

2022ko URTARRILA

# BERMEON ZER?

Urtarrilaren 5ean

## Hiru Errege Magoen Agerraldia

Urtarrilaren 20an

## IRAKURLEEN TXOKOA "Ibaiertzeko ipuina" Oihane Amantegi

Covid-19ak eragindako osasun krisiak, argitaratutako agendan eragina euki leike eta aldaketak egon daitezke. Ekintzetan edukiera mugatuko da. Kontsultatu beti [www.bermeo.eus](http://www.bermeo.eus) orrialdean.

# Gogoan izan



**ERABILI MASKARILLA**




**GARBITU ESQUAK**



**DISTANTZIA MANTENDU**



**EZ UKITU ELEMENTU KOMUNAK. EGITEN BADOZU, GARBITU ESQUAK**



**BESAULKIAK ESLEITZEN DOGUZ, SEGURTASUN-TARTEA BERMATZEKO**



**SARRERA-URTEKERA MODU ORDENATUAN EGIN**

**BERMEKO  
UDALA**

BIZI DOGUN EGOERA BEREZIA DALA-ETA, PROGRAMA HONETAKO ORDUTEGI ETA EKINTZAK ALDATU AHAL IZANGO DIRA INONGO AURRETIKO ABISU BARIK.

**03** Astelehena  
**04** Martitzena

*Bekoportalen*

1. txanda:

11:00etan

2. txanda:

12:30ean

**UMEENTZAKO TAILERRA**

“MUSIKA TRESNAK”

3-5 urte bitarteko umeentzako gomendatuta, beti be guraso edo arduradun batek lagunduta. Talde murriztuak. Derrigorra da 6 urtetik gorakoek musukoa ondo jarrita eroatea eta gomendagarria 6 urtetik beherakoentzat Sartzeko, nagusiek Covid 19 pasaportea eta NAN erakutsi beharko dabe.

Izena emon daiteke abenduaren 27tik aurrera (umeak nagusi batek lagunduta joan beharko dira)  
<https://forms.gle/iCj6JTKUrG795gVWA>

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**



**05** Eguaztena  
*Artza frontoiaren aurrekaldean*  
18:00etatik  
21:00etara

**HIRU ERREGE  
MAGOEN  
AGERRALDIA**

Informazio gehiago udaleko web gunean eta sare sozialetan.



**20** Eguena  
udal  
liburutegian  
18:30etik  
20:00etara

## IRAKURLEEN TXOKOA

Berbagai izango dan liburua:

# “Ibaiertzeko ipuina”

Oihane Amantegi

Oihane Amantegi idazle zornotzarrak liburu ederra idatzi dau. Izenburuak berak dinoan moduan ipuina da, ipuin luzea. Euskera dotorean idatzitako liburua da, samurra eta gozoa. Benetan gozoa. Ama baten eskuak ekoizten dabenez, eztiaren deskripzioa da, eta ezintasun horrek janzten dau liburua hasieratik amaierara arte.

Ama hori haurdun gelditu da, eta ume bikotxak daukaz sabelean, neska bi; baina erditzeko orduan bata bizirik jaio da, eta bestea hilda. Bizirik jaio dan umea konziente da ahizta hilda jaio dala, eta min hori aldean eukiko dau ahizta ibaiertzean topa dauen arte. Hilda dagoan ahizta txalupa baten etorri da Karontek lagunduta, eta ibaia zeharkatzeko txanpon bat emon beharko deutso Karonteri. Ahizta bien arteko harremana luzea izango da, bien arteko olgeta hasiko da, Karonte bera be lagun. Bizirik dagoanak txanpona lortu beharko dau hilda jaio zan ahizteari emoteko, horrek Karonteri ordaindu deion. Azkenik, istorio guztietan gertatzen dan moduan agurra etorriko da, baina agurra ez da latza izango; ahizta biak onartutako agurra izango da.

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**



**29** **Zapatua**  
Arrantzaleen  
Museoan  
Saio bi:  
12:00etan eta  
18:00etan

**ESPERIENTZIA ARTISTIKOA**

## MUSEKINTZA

# Irudiztutako inprobisazioak

Leire Llanoren IRUDIZTUTAKO INPROBISAZIOAK izaera parte-hartzailedun esperientzia artistikoak dira. Musikari batek eta bi ilustratzailek modu inprobisatuan jarduten dabe alkarregaz espazio mugatzaile bat ortuz, non, musikaren eta irudiaren bidez, parte hartzen daben ikusleek gai globalei eta gaur egun garrantzi berezia dabenei buruzko gogoetak partekatu ahal izango dabezan.

Sarrerea: dohainik.

Leku mugatua, erreserba aurretiaz.

Informazio gehiago: 946881171,  
arrantzaleenmuseoa@bizkaia.eus edo  
www.bizkaikoa.bizkaia.eus

Antolatzailea: **Arrantzaleen Museoa**



# Kultur Zerbitzuak

## Erakusketak

### BERHAZ BULEGOAN

Berhaz bulegoko XXXVII. erakusketea

Maria Luisa Salazar

#### "Gure zutabeak"

Gure ohiturek eta gure hizkuntzak bakarrak egiten gaitu.

Berhaz bulegoko ordutegia:

Astelehena, eguaztena eta barikua:

08:00-15:00

Martitzena eta eguena:

08:00-14:00 eta 16:00-18:00

### ARRANTZALEEN MUSEOAN

#### "Kresala. Bermeo 1974-1976"

2022ko ekainaren 26ra arte


Museoko ordutegian

Martitzenetik zapatara arte: 10:00etatik

14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara

Domeka eta jai egunetan: 10:00etatik

14:00etara. Astelehenak itxita



"Kresala. Bermeo 1974-1976"

Bermeoko portua, bertako bizimodua, lanak eta beste hainbat bizipen jaso ebazan Fede Merinok bere kamareagaz 1974-1976 urteen artean. Orduan ataratako argazkien digitalizazio eta kontserbazio lanak eginda, "Kresala. Bermeo 1974-1976" izenburupean aurkeztu dira oraingoan.

Sarrerea: 3,5 € orokorra eta 2 € murriztua (12 urtera artekoentzat doan). Zapatuetan doan Informazio gehiago: 946881171, arrantzaleenmuseoa@bizkaia.eus edo www.bizkaikoa.bizkaia.eus

### KOFRADI ZAHARREAN

Urtarrilaren urtarrilaren 9ra arte Bizkaiko Belenzaleen Elkartearen

#### "Vista de Bermeo" Belena

ikusteko aukerea egongo da.

Belen honetan Luis Paretek 1783. urtean egindako koadroaren irudia berregin da.

Arrantzaleen kofradi zaharrea

Ordutegia, 10:00etatik 22:00ak arte

Antolatzailea: Bermeoko Udala

Laguntzailea: San Pedro Arrantzaleen

Kofradia.



"Vista de Bermeo" Belena



## Enrike Zubia

Arrantzaleen Kofradi zaharrea

Urtarrilaren 9ra arte

Urtarrilaren 1ean, 2an, 6an eta 9an goizez:

13:00etatik 14:30era

Urtarrilaren 5ean eta 8an goizez eta

arratsaldez: 13:00etatik 14:30era eta

19:00etatik 21:00era

Urtarrilaren 3an, 4an eta 7an:

19:00etatik 21:00era

Antolatzaileak: Enrike Zubia eta Bermeoko Udala

Laguntzailea: San Pedro Arrantzaleen

Kofradia

## Euskera

### ANTZERKI TAILERRA

Urtarrilaren 5ean, 12an, 19an eta 26an.

19:00etatik 21:00etara

Irakaslea: Jon Ander Urresti

Antolatzailea: Bermeoko Udala

### BERBALAGUN

Bermeoko berbalgunek barriro martxan

urtarrilaren 10etik aurrera, praktikatu

euskaraz gugaz 2022an be!

Izena emon 607 609 580 telefonoan.

Eguaztena:

12:30ean Lameran / 18:30ean Bekoportalen.

Barikua:

16:00etan Lameran / 17:00etan Lameran.

Antolatzailea: Berbalagun.

Informazioa: 607609580 /

bermeoberba@gmail.com

<http://berbalagun-bermeo.blogspot.com>





## KZ GUNEA

### AURREZ-AURREKO IKASTAROAK

Urtarrilaren 3an

**BakQ ZIURTAGIRIA** (2 ordu)

11:00etatik 13:00etara euskaraz

Urtarrilaren 4ean eta 5ean

**Online izapideak Osakidetzarekin** (4 ordu)

11:00etatik 13:00etara euskaraz

Urtarrilaren 10ean eta 11n

**Informatica en la nube. Conoce qué es la nube** (4 ordu)

11:00etatik 13:00etara gaztelaniaz

Urtarrilaren 12an eta 13an

**Google Fotos. Organiza todas las fotos en la nube** (4 ordu)

11:00etatik 13:00etara gaztelaniaz

Urtarrilaren 14an

**Google Calendar. Gestiona mejor tu tiempo** (2 ordu)

11:00etatik 13:00etara gaztelaniaz

*Izena emon [www.kzgunea.eu](http://www.kzgunea.eu)*

### URRUNEKO FORMAZIOA

**Ikas ezazu ShotCut-ekin bideoak ukitzen.** 40 ordu (urtarrilaren 3tik otsailaren 2ra)

**Erabili profesionalki Google aplikazioak.** 40 ordu (urtarrilaren 3tik otsailaren 2ra)

**Ofimatika orokorra. LibreOffice.** 40 ordu (urtarrilaren 3tik otsailaren 2ra)

**Podcast, sortu zure irrati-kanala.** 40 ordu (urtarrilaren 3tik otsailaren 2ra)

**Ikasi HTML programatzen.** 20 ordu (urtarrilaren 10etik 26ra)

**Wordpress. Zure webgunea sortu.** 20 ordu (urtarrilaren 10etik 26ra)

*Izena emon [www.kzgunea.eu](http://www.kzgunea.eu)*

### IT TXARTELAK ATERATZEKO AZTERKETA DATAK

Urtarrilaren 5ean 9:00etatik 11:00etara

Urtarrilaren 13an 9:00etatik 11:00etara

Urtarrilaren 18an 14:00etatik 16:00etara eta 16:00etatik 18:00etara

\*Erabiltzaileen eskarien arabera, azterketa gehiago egiteko aukera dago.

*Izena emon [www.kzgunea.eu](http://www.kzgunea.eu)*



# GIZ

## 'BERMESEX' BERMEOKO SEXOLOGIA ORIENTAZINO ZERBITZUA

Hamabostero (urtarrilak 14 eta 28),  
16:00etatik 17:30era

Doako zerbitzua. Hartzaileak: gazteak, gazteen gurasoak, gazteekaz lan egiten dabena (irakasleak, hezitzaileak, tutoreak, begiraleak...).

E-posta: [bermesex@bermeo.eus](mailto:bermesex@bermeo.eus)

Skype: [orientazio.zerbitzua](https://www.skype.com/join/orientazio.zerbitzua)

Tel.: 644 898 661

Facebook: [Orienta Zerbitzua](https://www.facebook.com/Orienta-Zerbitzua)

Twitter: [@sexorienta](https://twitter.com/sexorienta)

## 2022ko GAZTE EGUTEGIA

GIZen prest daukagu 2022ko gazte egutegia!

Erdu GIZera edo Kultura Etxera eta hartu eizu datorren urteko hormako gazte egutegia eta jarri eizu zure logelan, lagunen lokalean edo gura dozun lekuan! Eta ganera doan!

Erdu Bermeoko GIZera agortu baino lehen!



# ZINEA

## NESTOR BASTERRETXEAREN TOAN

### Sarrerren prezioa:

Zapatu eta domeketan: 5,20 €

Astelehenetan, ikuslearen egunean: 4,50 €

Umeen filmak: 4,20 €

Sarrerak online: [www.giglon.com](http://www.giglon.com)


Egutegi eta ordutegi zehatzak [www.bermeo.eus](http://www.bermeo.eus) webgunean

## NAGUSIENTZAKO FILMAK

- 100 Días con la tata
- West side story
- Delicioso
- No somos nada

## UMEENTZAKO FILMAK

- Spider Man: no way home
- Clara y la navidad en la granja
- Canta 2
- El valle de las linternas
- Lunáticos





## ZUNBA #GZT

Mugi zaitez eta ederto pasa dantza eginez gaur eguneko abestiekkin

Intensitate maila: ●●●●●



## KARDIOBOX #GZT

Gorputza tonifikatu eta kaloriak erre boxeoko mugimenduak imitatuz koreografia dibertigarriekin!

Intensitate maila: ●●●●●



## INDARFIT #GZT

Indarraren mundua ezagutu nahi duzu? Indar ariketen oinarrizko teknika ikasi fitness munduan sartzeko!

Intensitate maila: ●●●●●



Saio solteak

### BonoGazte

(29 urte barne)

**GAP-FIBALL**

**INDARFIT**

**KARDIOBOX**

**ZUNBA**

**BIKING**

**TRX**



**17:00/17:15/18:00/18:15**

+info bulego birtualean/ kiroldegian

**2022/  
JARDUERA  
FISIKOAK**

# SAIO SOLTEAK

“ Aurten ez daukazu  
aitzakirik jarduera  
fisikoarekin  
hasteko ”



## TRX

Metodo honen bidez indarra garatzen dugu, CORE-a integratuz eta jarrera osasuntsua landuz.

Intensitate maila: ●●●●●●



## FITNESS FUNTZIONALA

360° ENTRENATZEKO PROPOSAMENA  
Material anitzekin gaitasun fisikoak entrenatzeko proposamen gogorra eta dibertigarria.  
Saio bakoitzean...erronka berri bat!

Intensitate maila: ●●●●●●



## GAP FITBALL-arekin

Fitball-arekin beheko atala lantzeko saioa..  
Jarduera fisikoarekin martxan hasteko aukera ezin hobeagoa!

Intensitate maila: ●●●●●●



## BIKING BIRTUALA

Martxan jarri pedalei eraginez musikaren erritmoan

Intensitate maila: ●●●●●●



**Otsailak, 11**

• Antzerkia: LUBAKI LAINOTSUA (ATX teatroa)

**Jarri hemen zure publizitatea**

Prezioa: 250 €

**946 179 157**

**kultura@bermeo.eus**

[www.bermeo.eus](http://www.bermeo.eus)

 **Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

